

2019. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2018ko urriaren 23an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2018/12/14. 240. zk.

ORDENANTZA FISKALA, KIOSKOAK BIDE PUBLIKOAN JARTEGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASEA ARAUTZEN DAUENA

1. artikulua: OINARRIA ETA IZAERA

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabilteko eta Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrira, herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasea ezarri da, bide publikoan kioskoak jar-teak dakarrena hain zuzen be. Tasa hori ordenantza fiskal honek eraenduko dau, eta haren arauak Foru Arau horren 21. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa bete beharko dabe.

2. artikulua: EGITATE EZARGARRIA

Herri jabariaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboa da tasa honen egitate ezargarría.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA

Subjektu pasiboak dira lizentziak edo emakidak jasoten dituen pertsonak edo erakundeak, edo aprobetxamenduaren onuradunak, baimen egokirik barik gauzatu badira.

4. artikulua: TASA KUOTEA

Honeexek osotuko dabe tasa kuotea:

- a) Emakidaren kanona, emakida barriak aplikatzeko.
- b) Hiruhileko tarifa m2ko aplikatzeko, ordenantza hau onetsi daneko indarreko emakidetarako.

5. artikulua: KANONA ETA TARIFAK

Enkantearen errematearen tarifa adjudikaturiko eremuari aplikatzearen emoitza-ko zenbatekoa izango da emakidaren kanona, eta metro koadroko lizitazioaren gutxiene-ko kopuruak izango dira aldean arabera, adjudikazino aldia 10 urtekoa danean:

	2019 (€)
1. aldea	640,49
2. aldea	470,66
3. aldea	303,54

4. aldea	256,18
5. aldea	204,39
6. aldea	155,92
7. aldea	135,32
8. aldea	121,39
9. aldea	84,10
10. aldea	66,73
11. aldea	48,21
12. aldea	26,14
13. aldea	4,77
M ² -ko edo zatika hiruhileko tarifak, ordenantza hau onetsi baino arinagoko emakidei jagokezanak, honeexek dira:	
- Lamera	69,14
- Tala	6,64
- Erribera	13,30

Instalazio barrien kasuan, 10 urtetik gorako aldiaren, lizitazioaren gutxieneko kopuruak azterketa honetan agertzen dan alde muetaren eta erabilera muetaren arabera izango da m²ko: "Herri jabariaren aprobetxamendua eta erabilerearen tasearen balorazioaren ganeke azterketea".

6. artikulua. SORTZAPENA

Tasea ordaindu beharra sortuko da:

- Erabilera pribatiborako herri jabariaren adjudikazioaren unean.
- Adjudikazioaren egunaren hurrengo hiruhileko naturalaren lehen egunean eta gero hiruhileko naturalaren lehen egunean emakidak dirauen bitartean.

7. artikulua. KITAPENA ETA ORDAINKETEA

Holan ordainduko da tasea:

- Bide publikoaren aprobetxamendu barriak emoten diranean, lizentzia edo emakida eskatzen dan unean.
- Baimendutako aprobetxamenduak diranean, tarifako aldi natural bakoaren lehen egunean.

AZKEN XEDAPENA

Kiosko honeen araubideari kalterik egin barik ulertuko da ordenantza hau: Lamera 2.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi eban Udalbatzak 2000ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran, eta haren aldaketak 2000ko abenduaren 30ean argitaratu ziran BAOren 251. alean. Halanda ze, 2001/01/01ean sartu zan indarrean eta indarrean jarraituko dau harik eta beren beregi aldatu edo indarririk barik itxi arte.